

*Consejo Escolar de Navarra*  
*Junta Superior de Educación*



*Nafarroako Eskola Kontseilua*  
*Hezkuntzako Batzorde Nagusia*

**10/2014 Irizpena**

**Ondoko zirriborroaren ganean: Bigarren Atzerri Hizkuntza Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera ematea baimentzeko prozedura, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren ikastetxeetan, arautzen duen foru agindua.**

*Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak 2014ko uztailaren 3an onetsia*

<p><b>Pedro González Felipe jn.</b> Kontseiluburua</p> <p><b>Ignacio Iriarte Aristu jn.</b> Idazkaria</p> <p><b>Santiago Álvarez Folgueras jn.</b> Guraso elkarten federazioetako ordezkaria (HERRIKOA)</p> <p><b>José Luis Asín Buñuel jn.</b> Hezkuntza Administrazioko ordezkaria</p> <p><b>Marcelino Azcoiti Alonso jn.</b> Toki entitateetako ordezkaria</p> <p><b>Pedro María Baile Torrea jn.</b> Guraso elkarten federazioetako ordezkaria (CONCAPA)</p> <p><b>Fernando Barainca Lagos jn.</b> Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)</p> <p><b>Iñaki Berasategi Zurutuza jn.</b> Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (LAB)</p> <p><b>Aurora Bernal Martínez de Soria and.</b> Unibertsitateetako ordezkaria (Nafarroako Unibertsitatea)</p> <p><b>Camino Bueno Zamarbide and.</b> Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria</p> <p><b>Ernesto Delas Villanueva jn.</b> Guraso elkarten federazioen ordezkaria (SORTZEN)</p> <p><b>Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier jn.</b> Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria</p> <p><b>Francisco José Flores jn.</b> Enpresarien elkarrekin ordezkaria</p> <p><b>Maximino Gómez Serrano jn.</b> Hezkuntza Administrazioko ordezkaria</p> <p><b>Carmen M<sup>a</sup> González García andrea</b> Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria</p> <p><b>David Herreros Sota jn.</b> Hezkuntza Administrazioko ordezkaria</p> <p><b>Iñigo Huarte Huarte jn.</b> Hezkuntza Administrazioko ordezkaria</p>	<p style="text-align: center;"><b>10/2014 Irizpena</b></p> <p>2014ko uztailaren 3ko Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran parte hartu zuten ondoan aipatu ditugun lagunek. Bertan irizpena eman zen, aldeko 15 botorekin, kontrako 7 botorekin eta abstentzio 1ekin, ondoko egitasmoaren gainean: Bigarren Atzerri Hizkuntza Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera ematea baimentzeko prozedura, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren ikastetxeetan, arautzen duen foru agindua.</p> <p><b>1 - ARAU AURREKARIAK.</b></p> <p>Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa<sup>1</sup> aldatu duen Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa<sup>2</sup> garatzearen ondorioz eta Lehen Hezkuntzako oinarrizko curriculuma ezartzen duen otsailaren 28ko 126/2014 Errege Dekretua<sup>3</sup> betez, Nafarroako Gobernuak Lehen Hezkuntzaren curriculuma garatu du bere eskumen eremurako, dagokion foru dekretuaren bidez. Orobat, Lehen Hezkuntzako irakaskuntza berrien ezarpena eta ordutegia arautzen dituen foru agindua prestatu da.</p> <p>Bigarren Atzerri Hizkuntza emateko aukerak jarraitzen duenez, ikastetxeek Hezkuntza Departamentuaren baimena izan</p>
--	---

<sup>1</sup> 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. (EAO, 106.a, maiatzaren 4koa).

<sup>2</sup> 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzkoa. LOMCE. (EAO, 295.a, 2013ko abenduaren 10ekoa).

<sup>3</sup> 126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Lehen Hezkuntzako oinarrizko curriculuma ezartzen duena (EAO, 52.a, 2014ko martxoaren 1ekoa).

<p><b>Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía jn.</b> Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)</p> <p><b>José Jorge Lanchas Rivero jn.</b> Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)</p> <p><b>Lourdes Larunbe Arretxe and.</b> Ikastetxeen administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkaria</p> <p><b>M<sup>a</sup> Paz Murillo Urcelay and.</b> Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT)</p> <p><b>Amilcar Quinatoa Quinatoa jn.</b> Ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria</p> <p><b>Paloma Virseda Chamorro and.</b> Unibertsitateen ordezkaria (NUP)</p>	<p>behar dute, Lehen Hezkuntzako irakaskuntza berrien ezarpena eta ordutegia arautzen dituen foru aginduak ezarri bezala.</p> <p>Adierazitakoaren ondorioz, bidezko da Bigarren Atzerri Hizkuntza Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera emateko baimenaren prozedura arautzea Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren ikastetxeetan.</p>
--	---

## 2. FORU AGINDURAKO EGITASMOAREN DESKRIBAPENA

Eskola Kontseiluaren irizpidepeko arau egitasmoa osatzen duten atalak dira: hitzaurrea, hiru artikulua, xedapen gehigarri bakarra, xedapen indargabetzaile bakarra eta azken xedapen bakarra.

Hitzaurrean arau-erreferentziak aipatzen dira, Eskola Kontseiluaren irizpidepeko foru agindurako egitasmoaren testuan proposatutakoa justifikatzen dutenak.

**1. artikulua.** Arauaren xedea eta aplikazio eremua zehazten ditu: Bigarren Atzerri Hizkuntza Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera ematea baimentzeko prozedura arautzea Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren ikastetxeetan.

**2. artikulua.** Eskaeraren prozedura ezartzen du, lau puntutan banatuta. Lehenengoan ezinbesteko betebeharrak gisa xedatzen da eskaera egiten duen ikastetxeak behar adinako irakasle izatea eta eskatutako titulazio akademikoarekin.

Bigarreanean zehazten da eskaera hori klaustroak onetsi beharko duela, hirugarreanean eskaera aurkezteko modua azaltzen da, eta laugarreanean gaineratzen da eskaerarekin batera dagokion antolaketako proposamena aurkeztu behar dela.

**3. artikulua.** Baimena emateko prozesua ezartzen du, proposatutako antolaketari eta irakasgaia emateko proposatutako irakasleen egokitasunari buruzko txostena egiten duela Ikuskapen Zerbitzuak.

Gainera, esaten du irakaskuntza horiek hasten dituzten ikasleei haren jarraipena bermatuko zaiela etapa bukatu arte eta arautzen du zer kasutan iraungi daitezkeen baimena eta baimena emateko gutxienez zenbat ikasle izan behar diren talde bakoitzeko (12 behar dira).

### **Xedapen gehigarri bakarra.**

Bigarren Atzerri Hizkuntza ikastea aukeratzen duten ikasleek ikasturtez ikasturte jarraitzearen gainekoa. Hiru puntutan garatzen da. Lehenengoan irakasgaia etapako hiru mailetan ikasi beharko dutela finkatzen da, bigarreanean irakasgaia ikasteari utzi ahal izateko prozedura zehazten da eta hirugarreanean arautzen da nola sar daitezkeen ikasleak, salbuespen gisa, bosgarren edo seigarren mailan.

### **Xedapen indargabetzaile bakarra**

Indarrik gabe gelditzen dira honako hauek: Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren martxoaren 17ko 91/2000 Foru Agindua<sup>4</sup>, Nafarroako Foru

---

<sup>4</sup> 91/2000 Foru Agindua, martxoaren 17koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana,

Komunitatean Haur eta Lehen Hezkuntzan Lehen eta Bigarren Atzerri Hizkuntzen irakaskuntza aurreratzeko baimenaren prozedura arautzen duena; Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren martxoaren 17ko 97/2000 Foru Agindua<sup>5</sup>, Nafarroako Foru Komunitatean atzerri hizkuntzen irakaskuntza aurreratua emateko zerikusia duten alderdiak arautzen dituena, eta foru agindu honetan ezarritakoaren aurka dauden xedapen guztiak.

### **Azken xedapenak.**

**Bakarra.** Arauak noiz hartuko duen indarra esaten du.

### **3.- IRADOKIZUNAK ETA OHARRAK**

Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak bidezko, komenigarri eta egokitzat jo du proposaturiko foru agindurako zirriborroa. Horrenbestez, ondoko egitasmoa tramitatzearen aldeko irizpena eman du: foru agindua, Bigarren Atzerri Hizkuntza Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera ematea baimentzeko prozedura arautzen duena Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren ikastetxeetan.

Nolanahi ere, onetsitako zuzenketetan aipatzen den bezala, ondoko aldaketak edo oharrak egitea iradokitzen du:

*Bigarren xedapen gehigarria. Eskatzeko prozedura, testu hau gehitzea:*

“Foru agindu honen 2. artikuluko 2. atalean ezarritakoa orientagarria izanen da ikastetxe pribatu itunduentzat”.

Iruñean, 2014ko uztailaren 3an

Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzan atzerriko lehen eta bigarren hizkuntzen irakaskuntza aurreratzeko baimena emateko prozedura arautzen duena. (NAO, 46.a, 2000ko apirilaren 14koa)

<sup>5</sup> 97/2000 Foru Agindua, martxoaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitatean atzerriko hizkuntzak aurretik irakasteko kontu batzuk arautzen dituena. (NAO, 46.a, 2000ko apirilaren 17koa)


O. E.

Kontseiluburua

Pedro González Felipe

Idazkaria

Ignacio Iriarte Aristu

A handwritten signature in black ink, consisting of a large, stylized letter 'P' with a vertical line through it and a horizontal line at the bottom, followed by a small dash.

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARI JN.